

BERGARAKO UDALA

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO V. TOKIKO PLANA

2022-2026



Bergarako
Udala



AURKIBIDEA

01

SARRERA

1

02

ESPARRU ARAUMAILEA

3

03

ESPARRU TEORIKOA

8

04

AZTERKETA
SOZIODEMOGRAFIKOA

9

05

ADIKZIOEN EGOERA BERGARAN 12

06

KOMUNITATEAK ADIKZIOEN
INGURUAN DUEN PERTZEPZIOA 50

07

LEHENTASUNEZKO ILDO,
HELBURU ETA EKINTZAK 65


08

PLANAREN EBALUAZIOA 74

09

ERANSKINAK 76

SARRERA



Adikzioen fenomenoak hainbat komunitatek aspalditik pairatu izan duten arazo konplexua da, gizartearen eraldaketekin batera aldatzen doana eta hainbat forma eta adierazpen har ditzakeena. Gaur egun mendekotasunen kontzeptualizazioa ez da substantzien kontsumoan soilik oinarritzen, baizik eta joko eta/edo teknologiek sor ditzaketen jarrera desegokiei ere erreparatzen die. Hala, mendekotasunen prebentzio lana eredu malgu eta dinamikoetan oinarritu behar da, une eta toki bakoitzeko errealitatearen heterogeneotasunera egokituaz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2016. urtean mendekotasunen prebentzio alorrean mugarri garrantzitsua izan zen Adikzioen eta Droga Mendekotasunei buruzko Arreta Integralaren legea (1/2016 Legea, apirilaren 7koa) onartu zuten, non gaur egungo errealitatera egokitzeko eta arazo honi erantzun eraginkorra emateko oinarriak jasotzen diren. Bide horretan, 2017. urtean, Adikzioen Euskadiko VII. Plana aurkeztu zen eta, erreferentziazko eredu bilakatu zen prebentzio lanean.

Udaleko plan bat izateak, mendekotasunei aurre hartzeko ekintza eta neurriak ezartzea errazten du, eta baita baliabide anitzen kudeaketa eta antolaketan profesional desberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa ere (Custorio, García, Orriols, Sanchez eta Serra, 2013).

Zentzu honetan, Bergarak herriko behar eta berezitasunei egokitutako adikzioen prebentziora bideratutako tokiko planetan bide luzea du. Indarraldian egon den azkenengoa IV Tokiko Plana da 2015etik 2020ra (biak barne) martxan egon dena.

Plana indarrean egon den urteetan EAEko Adikzioen Plan aldaketa, beraz testuinguru eta egitura aldaketa, baliabide pertsonalen aldaketak eta osasun-larrialdia egon dira bitarte, eta horrek Planaren garapena zaildu du.

Horrela, azkeneko Planaren indar-epea bukatuta, ezinbesteko bilakatzen da udalerriko egoera berriz ere baloratzea, alde batetik kontsumo, ohitura, adikzio eta erabilerari erreparatuz eta beste alde batetik planak izandako onurak eta ahuleziak aztertuz. Helburua, orain arte argitaratu diren ikerketa berri eta lehenengo Planetik eskuratutako ezagutzaz baliatuz, estrategia-ildo, programa, proiektu eta ekintzak egoera berri honetara egokitzea da. Guzti hau Bergarako Adikzioen Prebentziorako V. Planean bildu da, lau urteko iraupena duelarik (2022-2026).

Plan honen helburu nagusia, herritarren osasun integrala bermatzea da, gehiegizko kontsumo eta jokabide arazotsuak sahiestuz. Osasun integralaz ari garenean, ez dugu adikziorik edo gaixotasun ezaz soilik hitz egiten; Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, **osasun integrala gizabanako baten ongizate fisiko, emozional eta sozialeko egoera dinamikoari deritzo**, hau da, norbanakoak gorputz osasuntsua izateaz gain, psikoafektiboki ere ondo egotea eta bere ingurunearekin modu egokian harremantzea eta garatzea garrantzitsua da. Beraz, osasun integrala **pertsona bakoitzak norbanako gisa dituen trebetasunak bultzatzean datza, herritarrak beraien bizi-proiektuetan ahaldunduz.**

Droga-mendekotasun eta bestelako adikzio-jokabideen prebentzio eraginkorra lortu nahi bada, ezin daitezke norbanakoa artatzeko neurriak soilik aintzat hartu, pertsonen garapenean eragiten duten alderdi guztiak ere kontuan hartu behar dira; ondorioz, planaren indarraldian zehar (2022-2026 urte bitartean) prebentzio lana ikastetxeetan, osasun- eta lan-zentroetan, familietan, auzoetan, aisialdian, norbere garapen emozional eta sozialean egingo da, azken batean, komunitateko sektore guztietan.



Orain aurkezten dugun tokiko planak, datozen lau urteetarako aurreikusitako ekintza, gidalerro eta udal politika guztiak barne-hartzen ditu. Estrategia hauen eratze-prozesuan, funtsezkoak izan dira herritarren eta gizarte-eragile esanguratsuen ekarpenak; batetik, udalerriko gaur egungo adikzioen errealitatea zein den sakonki jakiteko eta lehentasuna duten ekintzak zehazteko aukera eman dutelako eta bestetik, komunitatearen parte diren heinean, adikzioen aurkako borrokan aktiboki parte hartzeko balio izan duelako, herrian lortu nahi diren aldaketen protagonista bilakatuz.

Horretaz gain, tokiko planean jasotako helburu, ekintza eta programen garapenean oso garrantzitsua izan da udal prebentzio mahai teknikoaren parte-hartzea. Bertan, udaleko hainbat sailtako adituak, beraien ezagutzaz eta esperientziaz baliatuz, herritarren beharrei erantzuteko baliabide eta estrategia egokienak aztertzen eta bilatzen aritu dira.

Laburbilduz, guztion artean sortutako plan hau, mendekotasunen esparruan udalaren eta Bergarako herritarren arteko konpromisoa bultzatuko duen erreferentziazko dokumentua izatea nahi dugu; lehentasuna emanez herritarren osasun eta ongizatea bermatuko dituzten esku-hartzeei, bai norbanako eta giza-taldeei bizi proiektu baikorrak eraikitzeko baliabide eta laguntza eskainiz, bai ohitura eta jokabide arriskutsuak gutxitu eta ekidingo dituzten ekintzak sustatuz.

ESPARRU ARAUMAILEA



Bergarako Adikzioen Prebentziora bideratutako Tokiko Plana egiteko, ezinbestekoa da arazo honi aurre egiteko indarrean dauden estrategia eta araudiak aintzat hartzea. Izan ere legediak jasotzen dituen gidalerroek, proposatutako ekintzei oinarri legala eta beharrezko koherentzia ematen diete.



Nazioartean

Drogen alorrean, **Nazio Batuen Erakundea (NBE)** da mundu mailan erreferente nagusia, zehazki Droga eta Delituaren aurkako Saila. Hauek Munduko Osasun Erakundearekin (OME) eta Estupefazianteen batzordearekin batera elkar-lanean, **araudiak, politika neurriak eta laguntza teknikoa eskaintzen dute nazioartean.**

Europa mailan

Europar Batasunean (EB), 2021-2025 urteetarako drogen aurkako ekintza plana dago indarrean. Giza eskubideak ardatz nagusitzat dituen **estrategia honek, genero berdintasuna eta osasun-ekitatearen ikuspegia txertatu ditu** bere baitan, gizartearen eta norbanakoaren ongizate eta babesa izanik helburu garrantzitsuena. Horretarako, lehentasunezko hiru ildo estrategiko ezarri dituzte: **drogak eskaintzea murriztea** (segurtasun hobekuntzak), **drogak eskatzea murriztea** (prebentzio, tratamendu eta arreta zerbitzuak bermatu) eta **drogek eragindako kalteak artatzea.**



Estatu mailan



Gaur egun estatuan indarrean dagoen **Adikzioen Ekintza Plana (2021-2024)**, Adikzioei buruzko Estrategia Nazionalaren bidez (2017-2024) garatzen da. Bere **eginkizun nagusia, ebidentzian oinarritutako ikuspegi integratu eta orekatua duen erreferentziazko esparrua eskaintzea da**, administrazio eta erakunde publikoek adikzioekin zerikusia duten planak eta programak abian jar ditzaten. Bere helburu nagusiak hiru dira:

- Drogen kontsumoak eta jokabide-adikzioek eragindako kalteak murriztea.
 - Drogen kontsumo eta jokabide-adikzioen presentzia murriztu.
- Mendekotasuna garatzeko adina ahalik eta gehien atzeratzea.



Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)

Abenduaren 15ean, Lehendakariak, 20/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Osasun Publikoa eta Adikzioak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari esleitutako arloak dira.

Adikzioen eta Drogomendekotasunen Arreta Integralari buruzko Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak arautzen ditu EAE-n mendekotasunak. Lege honek, osasunerako hezkuntza proposatzen du oinarritzko estrategia gisa, adikzioen fenomenoari ekiteko diziplina anitzeko esku-hartze integrala sustatuz eta **lehentasuna emanez ohitura eta kultura osasuntsu batera bideratutako prebentzio ekintza-eremuei.**

Garrantzizko prebentzio eremu horietako bat **esparru komunitarioa** da, izan ere beste eremuetan ez bezala, udal eta mankomunitateek garatzen dituzten prebentzio jarduerak **pertsona eta komunitatearekiko hurbiltasuna ahalbideratzen dute**, tokian-tokiko errealitatera egokitutako esku-hartze eraginkorrak gauzatuz. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren agindu honen bidez, **adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzea eta mantentzea bermatu nahi da, EAE-ko udalei eta mankomunitateei honako eskumenak emanez:**

68. artikulua.- Udalaren eskumenak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bere lurralde eremuan:

- a) Adikzioen udal-plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduerak egin, garatu eta burutzea, lege honetan, Euskadiko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, dagokion foru-planean xedatutakoari jarraikiz.
- b) Lurralde eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendua arautzea .
- c) Dagokio lurralde eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea.
- d) Lege honetan aurreikusitako kontrol neurriaen gainbegiratze eta zaintza.

Era berean, **prebentzio lan egokia arautzen duten beste artikulua batzuk** ere aintzat hartu behar dira:

13. artikulua.- Adikzioen Prebentzioa

Lege honen esparruan, adikzioak eragiten dituzten arrisku-faktoreei, kontsumo arazotsuei eta gehiegizko erabilerei prebentzio neurriak ezarriko zaizkie. Halaber, administrazio publikoek ere, bakoitzak bere eskumenen barruan, herritarrek kontzientziatzeko eta orientatzeko prebentzio neurriak hartuko dituzte, batez ere osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetan.

15. artikulua.- Prebentzioa familia eremuan

Gurasoak eta/edo tutoreak sentibilizatzeko esku-hartze eta programak gauzatuko dira, haurtzaroan eta nerabezaroan zehar babes-faktoreen sustapenean duten garrantziaz ohartarazteko.

16. artikulua.- Prebentzioa eremu komunitarioan	Esparru komunitarioko prebentzioak, lehentasuna du eta populazio orokorrean edo interes handieneko taldeetan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak hartzen ditu bere baitan, hala nola ikastetxeak, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, gazte, kultura, kirol eta boluntariora-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak.
17. artikulua.- Prebentzioa hezkuntza eremuan	Ikasturtean zehar, ikasmaita guztietako ikasle eta irakasleak drogen kontsumo eta gehiegizko portaera arriskutsuen inguruan sentsibilizatu eta informatuta mantendu. Lehentasuna emango zaio ikasleriaren norbere ezagutza, autoestimua, emozioen kudeaketa, norbere autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera prosozialak sustatzen dituzten baliabideen erabilerari.
22. artikulua.- Prebentzioa kirolaren, aisialdiaren eta denbora librearen esparruan	Osasunaren, gazteriaren, kirolaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten herri-administrazioek, substantzien kontsumoa, jarrera adiktiboak eta jokabide-adikzioak eragin ditzaketen ondorio arriskutsuak saiheste aldera, aisialdi eremu osasuntsuak bultzatuko dituzte politika integralen bitartez. Horretarako: a) Aisi eta denbora librean dibertitzeko altematiba osasungarri eta dibersifikatuak ezarriko dira. b) Teknologia digitalen eta aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea. c) Gazteen inplikazio eta elkarlana bultzatzea, aisialdi, kirol edo kultura programetan beraien parte-hartzea sustatuz, batez ere, zaugarriak diren norbanako edo gizataldeen kasuan.
69. artikulua.- Aurrekontu konpromisoak	Udaleko aurrekontu orokorrek, lege honetan ezarritako jarduerak gauzatzeko beharrezko kredituak aurreikusi beharko dituzte, bere eskumenen barruan, aurrekontu-erabilgarritasunen, onartutako programen eta xede horrekin izenpetutako hitzarmenen arabera.

Azkenik, proposamen honek, kontuan izan ditu **Euskadiko Adikzioen VII. Planak (2017-2021)** barne-hartzen dituen lehentasunezko gidalerroak eta garatu beharreko neurri esanguratsuenak:



ESPARRU TEORIKOA



Adikzioen Prebentziorako Tokiko Plana, ikuspegi eta eredu teoriko osagarriez osatutako puzzlean kokatzen da. Izan ere, etengabea aldatzen ari den aniztasun handiko gizarte baten parte gara eta, ezinbestez, adikzioak bere osotasunean ulertzeko hainbat esparru teoriko garatu dira historian zehar.

Plana aurrera eramateko estrategia aukeratzean, teorikoki zein zientifikoki ondo arrazoituta dagoela ziurtatu behar dugu. Horretarako ezin diogu prebentzio-lanari ikuspegi bakarretik heldu, eredu interaktibo, malgu eta irekietan oinarritu behar gara, sortzen diren egoeren nolakotasun eta uneen uneko aldaketei eraginkortasunez erantzuteko. Gainera, urteetan zehar hainbat prebentzio esku-hartzek erakutsi dutenez, mendekotasunei aurre egiteko giltzarria komunitatea osatzen duten kideen parte hartzea da, hausnarketarako testuinguruak sortuz eta beraien bizi-prozesu eta erabakietan ahaldunduz eta erantzunkidetasuna sustatuz.

Plan hau egitean, adikzioen fenomenoak hobeto ulertzeko eta esku-hartzearen nondik-norakoak zehazteko, begirada bateratu bat eskaintzen duten hainbat eredu teorikoen ekarpen zehatzetan oinarritu gara.

Eredu ekologikoa (Bronfenbrenner, 1981)

Teoria honen arabera, pertsonen garapena, norbanakoak bere inguruarekiko harremanetan bizi duen etengabeko egokitze prozesuaren emaitza da; hala nola, eskola, familia, lagun-taldea, komunikabide eta komunitatearekin orokorrean.

Ezartzen diren harreman guztiek pertsonaren bizi-ibilbidean eragin zuzena dute, baina harremanak bi noranzkoak direnez norbanakoak ere inguruan eragiten du. Horregatik adikzioen fenomenoak ulertzeko eta arrisku jokabideei aurre hartzeko, beharrezkoa da pertsonaren ezaugarriak aztertzeaz gain, honek inguruarekin ezartzen dituen interakzioak aintzat hartzea.

Illo beretik, mendekotasunen aurrean babes faktoreak indartzeko eta arrisku faktoreak txikitzeko funtsezkoa izango da inguru osoan esku-hartzea eta hauen arteko harreman koherenteak indartzea.

Eredu soziala (Stanton Peele, 1985)

Eredu hau pertsonen egunerokotasunean mendekotasunei ematen dieten esanahian oinarritzen da, hau da, adikzioa norbanakoak bere bizipenak interpretatzeko duen moduagatik gertatzen da. Erronka edo gatazkei aurre egiteko gaitasunek, norbere pertzepzioak, iraganeko bizipenek, nortasunak eta testuinguru sozialak drogen kontsumo eta honi aurre egiteko modua baldintzatuko dute.

Pertsona askok, estres, antsietate, sufrimendu eta ezegonkortasun egoerei erantzun emateko edota emozio desatseginetatik deskonektatzeko, droga kontsumora eta/edo mendekotasuna sortzen duten jokabideetara jotzen dute.

Autore honen esanetan, gure kulturak frustrazioarekiko tolerantzia maila baxua dauka eta berehalako ongizate eta gogobetetze maila bilatzen du; ondorioz substantzien kontsumo edo adikzioa sortzeko gaitasuna duten jokabideak izatea (kirol apustu, zorizko-joko, sare-sozial, e.a.) oso onartuta daude gure gizartean. Horregatik, erabilera edo kontsumo arduratsu eta gehiegizko kontsumo edo erabileraren artean bereizten irakatsi behar zaio jendeari, herritarren artean arrisku pertzepzioak eraldatuz eta arazo honen inguruan kontzientzia sortuz.

Eredu bio-psiko-soziala (George L. Engel, 1977)

Teoria honen arabera, faktore biologiko, psikologiko eta sozialek giza jardueran, gaixotasunean, desgaitasun egoeretan eta adikzio-prozesuetan eragin esanguratsua dute.

Prebentzio esparruan eredu honen ekarpenik adierazgarriena "arrisku-faktore" kontzeptua sortzea izan da. Ikuspegi honetatik, arrisku-faktoretzat hartzen da pertsona batek mendekotasun bat hasteko eta mantentzeko aukerak areagotzen dituen inguru zein pertsonen ezaugarri multzoa. Horregatik, honi esker, adikzioaren garapenarekin lotura esanguratsua duten elementu, egoera eta gertaerak eraginkortasunez antzeman eta mugatu ahal izan dira.

Eredu komunitarioa (Cowen, 1980; Felner et al. 1983)

Mendekotasunen prebentzioa eredu komunitario batetik heltzeak, testuinguru mikrosozialen (familia, lagun talde, auzo, e.a.) eragina kontuan hartzea ahalbidetzen du, bai adikzioen sorreran zein hauen garapenean. Hori dela eta, konponbide eta estrategien bilaketa-prozesuan komunitatearen parte-hartze antolatua beharrezkoa dela baieztatzen da; aldi berean gizarteratze gune anitzetan lan egiteko aukera eskainiz.

Horretaz gain, eredu honek, komunitatearen baliabiderik preziatuena pertsonak direla defendatzen du, bereziki lurralde bateko bizilagunek duten ekimenerako gaitasuna goraipatzen da. Izan ere pertsonen gaitasunez baliatuz gizartearen behar eta eskariei modu eraginkorrean erantzuten zaie.

Plan honetan proposatzen diren prebentzio ekintza eta esku-hartzeak, hainbat **prebentzio mailatan** oinarritzen dira, ekintzaren xede diren gizataldeen arriskugarritasun eta zaugarritasun mailaren arabera:

PREBENTZIO MAILAK




AZTERKETA SOZIO- DEMOGRAFIKOA



BIZTANLERIA

Bergara herria, **Debagoiena**, Gipuzkoako mendebaldean dagoen eskualdean kokatzen da. Bertako udalaren arabera, 2021. urtean **14.584 biztanle** zituen, horietatik **7.243 gizonezkoak** (% 49,66) eta **7.341 emakumezkoak** (% 50,33) izanik. Adin-tarteak kontutan izanik horrela geldituko litzateke biztanleriaren banaketa: (Ikus 1. eranskina).




Iturria: INE (Estatistikako Institutu Nazionala)

INE-k (Estatistikako Institutu Nazionala) dioenez, 1996tik 2020. urtera Bergarako **hazkunde begetatiboa negatiboa** izan da. Bertako biztanleria galdu den arren, migrazioaren prozesuari esker biztanleria mantendu ahal izan da.


Bergaran bizi diren % 9,70 atzerrian jaiotakoak dira (1416 pertsona) atzerritarren jaioterria Maroko da nagusiki (% 16,38), ondoren Bolivian jaiotakoak (% 10,02) eta jarraian Pakistanen jaiotakoak (% 8,89).

Bergaran bizi diren
atzerritarrek
kontinentearen arabera.




Iturria: INE (Estatistikako Institutu Nazionala)

2020. urtean, **goi-mailako ikasketak** dituen biztanleriaren tasa % 17,25 izan zen, Euskadiko batz bestekoa baino bi puntu txikiagoa alegia. Hala ere, **lanbide-heziketa** dutenen tasa % 25,29 da; Gipuzkoako batz bestekoa (% 19) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (% 19,7) baino askoz handiagoa. (Ikus 2. eranskina).



Herritarren hizkuntzari dagokionez, 2016. urtean, biztanleriaren % 48,96k euskara zuen **ama hizkuntza bezala**, % 38,41ek gaztelera eta % 8,6 biak. (Ikus 3. eranskina)



2020ko datuen arabera, Bergarako jarduera ekonomikoaren **% 61,51 zerbitzu sektorean oinarritzen da eta % 33,83 industria sektorean** (Ikus 4. eranskina).



Lehen Sektorea

% 0,8



Industria eta energia

% 33,83



Eraikuntza

% 3,78



Zerbitzu sektorea

% 61,51

Lanbideren datuen arabera, Bergarako enplegu sormenaren indizea ertaina da.

Langabezia-tasari dagokionez, **2020. urtean % 7,9** izan zen, **567 pertsona** alegia (Lanbide 2020).

Tasa hau Euskadiko (% 9,2 gizonak eta % 11,2 emakumeak) batz bestekoa baino baxuagoa da.

**% 7,9
(567)**

Langabezia tasa 2020an

% 7,1

Gizonezkoaen langabezia
tasa

% 8,0

Emakumezkoen langabezia
tasa



18 urtetik gorako pertsonen **per capita errenta 24.744 €**-koa da (EUSTAT, 2019), Gipuzkoakoa (23.756 €) eta Euskadikoa (22.601 €) baino handiagoa.

ADIKZIOEN EGOERA BERGARAN



Bergaran adikzioekin dagoen egoera zein den ikertzeko inkesta zabala egin diegu Bergarako ikastetxeetan ikasten duten ikasleei. Egindako azterketa Bigarren Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean banatu daiteke. Lehendabizi Bigarren Hezkuntzako datuak aurkeztuko dira:

BIGARREN HEZKUNTZAKO DATUAK

Partaideen ezaugarriak




Aranzadi
178



Ipintza
471


Mariaren Lagundia
154


Miguel Altuna
41

Emakumeak	82	236	72	14
Gizonak	94	226	77	26
Ez bitarrak	2	9	5	1

Aztertutako hezkuntza mailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3., 4. maila, Batxilergoa eta Oinarrizko-, Erdi-, eta Goi- mailako Lanbide Heziketa izan dira hurrengo banaketarekin:



Adinaren eta generoaren arabera horrela banatzen dira datuak:

ADINA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	GUZTIRA
12 URTE	68	62	3	133
13 URTE	76	70	2	148
14 URTE	62	67	3	132
15 URTE	43	63	2	108
16 URTE	54	63	2	119
17 URTE	50	53	3	106
18 URTE	28	21	-	49
19> URTE	23	24	2	49
GUZTIRA	404	423	17	844




Alkohola probatzea

NOIZBAIT ALKOHOLA PROBATU DUZU?

Baietz erantzun dute parte hartu dutenen % 53,8k, gizonen % 55,8k, emakumeen % 52,5k eta pertsona ez bitarren % 35,3k.

Adinari dagokionez, adina handitzen doan heinen alkohola dastatu dutenen kopurua handitzen doa, 12 urtekoen artean % 5,3k probatu dute eta 18 urtekoen artean berriz, % 93,9k. (Ikus 5. eranskina).



Nabarmenezkoa da alkohola 12 urterekin probatu duten gizonen ehunekoa (% 9,7), emakumeen % 1,5ekin alderatuta. 13 eta 14 urterekin (funtsezko adina alkohola kontsumitzen hasteko), emakumeek pixka bat gehiago probatzen dute gizonezkoekin alderatuta, eta 16 eta 17 urte bitartean ere gauza bera gertatzen da. 18 urtetik aurrera, gizonezkoen tasa emakumezkoen baino altuagoa da. (Ikus 5. eranskina).


Bitarrak ez diren pertsonen, 14 urtekoen artean izan ezik, alkohola probatzeko tasa txikiagoak dituzte gizonen eta emakumeekin alderatuta.

14 urte

Bergaran edaten hasteko adina
Gizonak 14 urte eta hilabete 1
Emakumeak 13 urte eta 10 hilabete


%72,5

14 urterekin edo lehenago
 hasi dira alkohola
 kontsumitzen



13-14 urterekin hasi dira
 kontsumitzen

(Ikus 6. eranskina).



*Genero ez bitarren datuak ez dira estadistikoki esanguratsuak.

Alkohola kontsumitzea

Aurrerago aipatu bezala, galdetegian parte hartu dutenen erdiak alkohola probatu dute (% 53,8), **%36,7 azkenengo hilean kontsumitu du**, hau da, probatu dutenen % 68k .


Biztanleriak egiten duen alkohol kontsumoa kualitatiboki neur daiteke alkohol- unitate edo gramotan:

ALKOHOL UNITATEA




Alkohol unitate batek 10 gramoren baliokidetasuna dauka; hau da, 100ml.-ko ardo kopa bat, garagardo bat edo graduazio altuko alkohol txupito bat.

Generoaren arabera azken hilean egindako kontsumo tasa altuena pertsona ez bitarrena da. Tarterik handiena 5 eta 10 unitate tarteko kontsumoetan ematen da pertsona ez bitarren %23,5ek kontsumitu du kantitate hau, emakumezkoen %9,2k eta gizonezkoen %7,8k. (Ikus 7. eranskina).



Ulergarria den bezala partaideek egiten duten alkohol kontsumoa nabarmen aldatzen da adin batetik bestera:



Ikerketan generoa aztertuz gero, kontsumorik arriskutsuenak zein adin- tarte eta generotan ematen ari diren ikus dezakegu (ikus 9. eranskina). Ondoren agertzen dira daturik garrantzitsuenak:

KONTSUMITUTAKO ALKOHOL KANTITATEA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

13 urte	Gizonezkoen kontsumo tasa emakumezkoena baino 2 puntu altuagoa da adin honetan, baina emakumezkoen % 2,6k kontsumo 150 gramo alkohol baino gehiagoko kontsumoak dituzte.
14 urte	Gizonezkoen % 28k eta emakumezkoen %26k 100 gramo baino gutxiago kontsumitzen dute, 15 unitate baino gehiagoko kontsumoetan gizonezkoen tasa gailentzen da.
15 urte	Generoaren arabera desberdintasunak mantentzen dira. Gizonezkoen % 35ek eta emakumezkoen % 32k 100 gr baino gutxiagoko kontsumoak eta gizonen % 6,4k eta emakumeen % 7k 15 unitate baino gehiago .
16 urte	Kontsumo altuko joera mantentzen da generoaren arabera desberdintasun handirik gabe. Gizonezkoen % 14,2 eta emakumezkoen % 14,8k 150 gramo baino gehiagoko kontsumoak egiten dituzte.
17 urte	Emakumezkoen gehiegizko kontsumoak (% 22) handitu egiten dira gizonezkoekin konparatuta (% 15,1).
18 urte +	Gizonezkoak dira gehiegizko kontsumo gehien egiten dutenak (% 26,7) emakumezkoen tasa kontsumo-kopuru honetan % 11,8 da.

Genero bitarrekoak ez diren pertsonak ez daukate kontsumo alturik, partaide kopurua txikia denez, datuak adinaren arabera banatzerakoan balio estadistikoa galtzen dute.

(Ikus 9. Eranskina)

Alkohola kontsumitzeko arrazoiak

Garrantzitsua da gazteen alkohol kontsumoaren atzean ezkutatzen diren arrazoiak zeintzuk diren jakitea. Jasotako erantzunen artean honako hauek izan dira adierazgarrienak:

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK


Ondo pasatzeko	% 76,3
Arazoak ahazteko- denataz paso egiteko	% 64,1
Nire lagunek egiten dutelako	% 62,8
Taldearen parte sentiarazteko	% 60,9
Hobeto harremantzeko	% 53,1
Sentsazio berriak bizitzeko	% 52,7
Mozkortzeko	% 52,2
Ligatzeko	% 52,1

ALKOHOLA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK


Osasunerako kaltegarria delako	% 47,0
Ez dudalako nahi besterik gabe	% 20,1
Kontsumoaren arriskuengatik	% 8,5
Kontrola galtzen delako	% 7,8
Gurasoek ez harrapatzeko	% 6,3
Efektu gogaikariengatik	% 4,1
Ez dudalako ondo pasatzeko behar	% 0,1

Alkohol kontsumoa etorkizunean


Datorren urtean
edo nagusiagoa
zarenean alkohola
edango duzula uste
duzu?



Erantzunak generoaren arabera aztertzen ditugunean hurrengokoak dira emaitzak (Ikus 10. eranskina):



Adinarekin batera partaideen alkohola edateko aurreikusten dituzten aukerak ere handituz doaz (Ikus 10. eranskina):



Alkohola erostea

Hurrengokoak dira gazteek alkohola lortzeko edo erosteko gehien aipatu dituzten erak edo lekuak: (Ikus 11. eta 12. eranskinak).

% 81,6



% 66,6



% 55,5



Ez dago desberdintasun handirik generoaren arabera. Adinaren arabera aipagarria da txikienek erraztasun handiagoarekin lortzen dutela alkohola pertsona nagusiagoen bidez.

Alkohol kontsumoaren arrisku portareak: Audit Testa

Audit testa, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sortu zuen 1989. urtean, (1992.urtean eguneratua). Alkohol kontsumo arriskutsu eta kaltegarriak dituzten pertsonak identifikatzeko balio duen baheketa tresna da. Arrisku egoeran dauden pertsona edaleekin esku-hartzea egiteko testuinguru aproposa eskaintzen du, bai alkohola guztiz utzi edo kantitateak murrizteko, zein kontsumoak eragin ditzakeen kalteak ekiditeko. Horretaz, gain, alkoholarekiko mendekotasuna eta beste zenbait ondorio zehatz antzemateko ere baliagarria da.

NOLA IRAKURRI DATUAK?

Arrisku kontsumoa, mendekotasun sintomak eta kontsumo kaltegarria neurtzen dituzten 10 galderaz osatua dago. Balorazioa 0 eta 40 puntu artekoa da eta pertsona helduetan honela interpretatzen da:

- **0tik 7puntura**: Abinentzia edo arrisku baxua.
- **8tik 15 puntura**: Alkoholarekin arazoak izateko erdi mailako arriskua.
- **16tik 19 puntura**: Alkoholarekin arazoak izateko arrisku handia.
- **20 puntu edo gehiago**: Alkoholaren mendekotasunaren ebaluaketa diagnostikoa



Proba hau batez ere pertsona helduekin erabili izan da esparru klinikoan, ez hainbeste nerabeekin, beraz lau estatistiken mozketak-mailak ez daude argi zehaztuta, baina nazioarteko adostasuna dago maila horiek nerabezaroan puntuazio baxuagoekin lortzen direla.

Aztertutako populazioan, honako datu hauek lortu dira (ikus 13. eranskina).

MENDEKOTASUNA >19	Arrisku handiko parametroei erreparatuz, lagineko 14 (% 1,7) pertsonek alkohol kontsumoarekiko portaera oso kaltegarriak izaten ari dira , kasu hauetan egokiena egoeraren balorazioa egin dezakeen profesional batengana bideratzea litzateke.
ARRISKU HANDIA 16-19	Eskala bat jaitsiz gero, 32 dira (% 3,8) 16 eta 19 bitarteko puntuazioa duten pertsonak jarrera desegokiak erakusten dituzte eta hauek kontrolpean mantendu beharko lirateke alkoholarekiko mendekotasuna garatzeko duten arriskuagatik.
ERDI MAILAKO ARRISKUA 8-15	Puntuazioan behera eginez, 8 eta 15 puntu bitartean 174 pertsona daude (% 20,6) . Hauek alkohol mendekotasuna garatzeko arrisku nahiko handia izan dezakete bizitzako adin goiztiarretan.
ABSTINENTZIA EDO ARRISKU BAXUA	Parte hartu dutenen %73,93k ez dute joera arriskutsurik erakusten alkohol kontsumoan.


Duela urte batzuk arte, tabakoa izan da gazteen artean dastatzen zen lehenengo substantzia, baina gaur egun alkoholak bigarren postura eraman du. Substantzia hau probatzeko eta kontsumitzeko tasen jaitsiera esanguratsua izan da azken urteetan egindako prebentzio lanengatik, zein legediaren aldaketagatik eta komunitatearen kontzientziazio maila altuarengatik. Gizartean orokorrean iritzi eta joera aldaketa egon da substantzia honen erabilerari dagokionez, eta horrek eragin du gaur egun Euskadin azken urteetako tabako kontsumo tasarik txikiena izatea. Hala ere, beste gailu batzuk agertzeak, hala nola baperrak, tabakoa ordezkatu dute gazteen artean.

Tabakoa/ Baperra probatu

NOIZBAIT TABAKOA/BAPERRA PROBATU DUZU?

Bergaran noizbait **tabakoa probatu dutenen kopurua** (gutxienez zigarro erdi) % **26,4** da eta **baper-ra probatu dutenena** % **29,7**. Baperraren kasuan tasa altuago da gizonezkoetan, tabakoaren kasuan emakume zein gizonezkoen tasa antzerakoa da, pertsona ez bitarren tasa zerbait baxuagoa izanik.

Tabakoa probatzea
generoaren arabera






TABAKOA eta BAPERRA ADINAREN ARABERA



14 urterekin, lau gaztetik ia batek probatu du tabakoa. 14 urtetik aurrera, jauzi kuantitatibo handia gertatzen da: 14 urterekin % 12,9 izatetik 15 urterekin % 31,5era igarotzen da (ia 20 puntuko igoera edo % 14,4koa). 16 urtetik aurrera, hiru pertsonatik batek probatu du, eta 17 urterekin partaideen erdiak.

Ohiko tabakoa baino urtebete lehenago hasten dira partaideak, txikieneen tasa altuekin (12-14 urtebitartekoen artan tabakoaren tasen bikoitza edo gehiago agertzen da), nagusiagoen artean tasak berdinduz doaz, batez ere 17 urte edo nagusiagoen artean.



14 urte eta 7 hilabete


Tabakoa kontsumitzen
hasteko adina

% 22,3

13 urterekin edo arinago hasi
dira tabakoa kontsumitzen


% 50,7

14-15 urte bitartean hasi dira



10 etik 3, 16 baino
gehiagorekin hasi dira

Generoari erreparaturaz gero, genero ez bitarrak dira arinen haste direnak, 14 urte eta 0 hilabeterekin, emakumezkoak 5 hilabete geroago eta gizonezkoak 14 urte eta 9 hilabeterekin.



*Genero ez bitarren datuak ez dira estadistikoki esanguratsuak.

Tabakoa ohituraz kontsumitzea

TABAKOA KONTSUMITZEN DUZU?

Parte hartu dutenen % 26,4k tabakoa dastatu badu, horietatik % 15,5ek ohituraz (azken 30 egunetan) kontsumitzen dute. Hauetatik, 3tik 1ek (% 5,5), egunero edo ia egunero erretzen dute.

Emakumeak

Azken 30 egunetan

% 15,6



Egunero edo ia egunero

% 5,7



Gizonak

% 15,4



% 5,2



Ez bitarrak

% 17,6



% 5,9



Eta tabakoaren ohiko kontsumoa adin eta generoaren arabera aztertzen bada?

Adinaren arabera **lehendabiziko kontsumoa 13 urterekin** hasten da, adin honetan emakumezkoen tasa gizonezkoen tasa baino 4 puntu altuagoa da eta bitarrak ez diren pertsonena baino 6 puntu altuago da. Adin honetatik aurrera emakumezkoen kontsumo tasak gero eta altuagoak dira eta adin-tarte guztietan 16 urterekin izan ezik gizonezkoen tasak gailentzen dituzte. Gizonezkoen kontsumoak batez ere 15 urtetik aurrera ematen dira. (Ikus 14. eranskina)



Kalamua da gazteen artean kontsumitzen den legez kanpoko lehen droga. Gehinetan, substantzia honen kontsumoa tabakoarena baino urtebete edo pare bat urte beranduago agertu ohi da.

Kalamua probatu

NOIZBAIT KALAMUA PROBATU DUZU?

Galdera honetan baiezko erantzuna eman dute inkestaturen **% 18,6k**; lagineko emakumeen % 16,6k, gizonezkoen % 20,3k eta pertsona ez bitarren % 23,5ek.

KALAMUA PROBATZEA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

(Ikus 15. eranskina)

12 urte	●	Gizonezko bakarrak probatu du kalamua adin honetan.
13 urte	●	Lehendabiziko kontsumoak agertzen dira emakumezkoen tasa altuena izanik .
14-15 urte	●	Adin nagusikoek aurreko urtekoek baino tasa altuagoak dituzte, emakumezkoen tasa gailendu egiten 15 urtekoen artean .
16-17 urte	●	Kontsumo tasak igotzen dira aurreko urteekin koparatuta, 3 pertsonatik 1ek probatu du adin hauetan. Generoaren aabera gizonezkoenak dira altuenak.
18 urte +	●	3 pertsonatik 2k probatu dute kalamua adin hauetan. Gizonezkoen tasa da altuena adin nagusiko pertsonen artean.


***Pertsona ez bitarren tasak** dira tasarik altuenak adin-tarte batzuetan baina pertsona gutxi direnez adin-tarte bakoitzean, datuek ez dute balio ondorio argietara iristeko.

15 urte eta 0 hilabete


Kalamua kontsumitzen
hasteko adina

% 73

14-16 urterekin hasten dira
kalamua kontsumitzen



13 urterekin edo lehenago edo
15 baino gehiagorekin hasiak
kalamua kontsumitzen



Generoaren arabera, ez dago alderik gizonen, emakumeen eta bitarrak ez diren pertsonen artean, pertsona guztiak 15 urterekin hasten baitira.


Emakumeen hasierako kontsumoaren adin ohikoena 15 urte dira, eta gizonezkoen kasuan 14 eta 16 urte.

(Ikus 16. eranskina).

Kalamua kontsumitu

AZKEN 30 EGUNETAN KALAMUA KONTSUMITU DUZU?

Kalamua **azken 30 egunetan kontsumitu** duten gazte eta nerabeen (12-20 urte) tasa **% 7,58ekoa da**, hau da, probatu dutenen % 40,76. Gizonezkoen artean % 10,18k, emakumezkoen artean % 4,45ek eta pertsona ez bitarren artean % 17,6k probatu dute.




Oro har, kontsumoak gora egiten du adinarekin batera; lehendabiziko **jauzi kuantitatiboa 14 eta 15 urte bitartean** izanik, % 6,1eko tasa izatetik 15 urterekin % 14,8 izatera igarotzen da. Adin horretatik kontsumoak igotzen jarraitzen dute **18 urtekoen % 57,1eko** edota **19 urte baino gehiegokoan % 63,2ko** tasara heldu arte.

KALAMU KONTSUMOA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

(Ikus 17. eranskina)

12 urte	●	Ez dago kontsumorik.
13-14 urte	●	Lehendabiziko kontsumoak. Kontsumo puntualak agertzen dira, gizonezkoen artean bakarrik.
15 urte	●	3 kontsumitzaile daude, gizonezko bat, emakumezko bate eta bitarra ez den pertsona bat.
16 urte	●	Adin honetan kontsumitzaile kopurua handitzen da gizonezkoen kontsumitzaile kopurua handiena izanik.
17 urte	●	Gizonezkoen kontsumitzaile kopurua da handiena, emakumezkoen tasa laukoiztuz.
18 urte edo +	●	Bitarrak ez diren pertsonak ez dute kontsumitzen adin hauetan. Gizonezkoen tasa emakumezkoena baino 11 puntu handiagoa da adin tarte honetan.

***Adin tarte bakoitzeko pertsona ez bitarrak** gutxi direnez, datuek ez dute balio ondorio argietara iristeko.



Kanabisaren eguneroko edo ia eguneroko kontsumoa 14 urtetik aurrera agertzen da emakumeen artean eta 15 urtetik aurrera gizonen artean. Emakumezkoen kontsumo mota hau gizonen baino altuagoa da 16 urterarte, nagusiagoen artean gizonena gailentzen da. Nabarmentzekoa da **18 urtetik gorakoetan gizonen % 37,5ek eta emakumeen % 39,1ek egunero kontsumitzen dutela.**

Kalamua kontsumitzeko arrazoiak eta testuingurua

KALAMUA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Kuriositatea	% 15,9
Ondo pasatzeko era berria	% 5,8
Inguruan dagoelako	% 2,3
Frustrazio edo gatazka baten ondorioz	% 1,4
Lagun taldeak egiten duelako	% 0,5
Helduen bizimoduari kontra egiteko	% 0,2

KALAMUA KONTSUMITZEKO TESTUINGURUA

Lagunekin nagoenean	% 9,2
Pozik nagoenean	% 5,2
Bakarrik nagoenean	% 3,8
Arazoak ditudanean	% 2,4
Zer egin ez dakidanean	% 1,8
Ziurtasun eza sentitzen dudanean	% 1,7
Jairen baten nagoenean	% 0,1



Beste droga batzuen kontsumoa

Aipatutako drogez gain, gizartean ohikoak izaten dira legezko edo legez -kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitzea. Bergaran hurrengoak dira inkestan parte hartu duten ikasleek dastatu dituzten substantziak. (Datu guztiak ikusteko ikus 18. eranskina).

1

Psikofarmakoak dira gehien probatutako substantziak (% 6,9) genero guztien artean. Substantzia honen tasak gainontzeko droga gehienek tasak ia bikoizten ditu.

2

Ondoren **kokaina, estasia, speed-a eta arnasgarriak** dira gehien kontsumitutako substantziak, % 4,1 eta % 5,3 tarteko tasekin.

3

Gainontzeko substantziak % 3,2 eta % 3,9aren artean mantentzen dira, tasarik baxuenak estasi eta heroinarenak dira.



Orokorrean antzeman daitekeenez, gizonzkoek emakumeek eta pertsona ez bitarrek baino dastatze tasa altuagoak dituzte.

AZKEN HILEKO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOA

(Ikus 19. eranskina)

1

Psikofarmakoak dira ikasleen artean azken 30 egunetan gehien kontsumitu diren substantziak (% 2,6) batez ere emakumezkoen artean.

2

Bigarren substantzia kontsumituenak **kokaina** (% 1,9) eta **arnasgarriak** dira (% 1,9) kasu honetan gizonzkoen tasak gailentzen dira.

3

Gainerako substantzien kontsumoa % 1 inguru baino gutxiagokoa da.



Drogen arrisku pertzepzioa

ARRISKU PERTZEPZIO ALTUA

Substantzien kontsumoarekiko arrisku pertzepzioan arreta jarritz gero, orokorrean, **heroina eta kokaina** dira (% 88-84) oso arriskutsu bezala antzematen diren drogak. Ondoren, ikasleen %68-69ren arabera, estasia, **speed-a eta substantzia haluzinogenoak** ere nahiko arriskutsuak dira.

ARRISKU PERTZEPZIO ERTAINA

Kalamuari, **speed-ari, estasiari eta haluzinagarri**ei dagokienez, parte hartu dutenen % 60-70ek oso arriskutsuak direla deritzo. Era berean, % 52,8k droga **arnasgarriak** ere substantzia arriskutsutzat dituzte eta % 45,1ek tabakoa.

ARRISKU PERTZEPZIO BAXUA

Legezko drogak dira arrisku pertzepzio tasa baxuenak erakutsi dituzten substantziak (edari energetikoak % 14,7; alkohola % 32,7 eta psikofarmakoak % 39,3ren ustetan dira oso arriskutsuak). % 53,9rentzat edari energetikoak ez dira batere kaltegarriak eta %25,3rentzat alkohola ere ez.

(Ikus 20. eranskina)

Arrisku pertzepzioa substantziaren kontsumo maiztasunarekin oso erlazionatuta dago, izan ere arrisku txikiagoa antzematen da urtean noizbait kontsumitzen bada, hilebetero, astero edo egunero kontsumituz gero baino.

ARRISKUEN PERTZEPZIOA MAIZTASUNAREN ARABERA

(Ikus 21. 22. 23 eta 24. eranskinak)

Azken urtean kontsumitzea

Azken urtean substantzia hori kontsumitu bada, arriskuaren pertzepzioa handia edo oso handia dela uste izatea nabarmen aldatzen da, batez ere legez kanpoko substantzietan, arrisku pertzepzioa 13 eta 22 puntu bitarte jaisten da; kalamuaren kasuan kontsumoagatik 13 puntuko jaitsiera dago, tabakoaren kasuan % 7,7ko gutxiagoko tasa dago kasu honetan eta alkoholaren kasuan 3,4 puntukoa. Gutxien jaisten direnak psikofarmakoak dira, % 3.

Azken hilean behin baino gehiagotan kontsumitzea

Arrisku-pertzepzio altuko edo oso altuko tasek gora egiten dute legezko substantzien kasuan eta legez kanpoko kasuan txikitu egiten dira, batez ere kokainaren eta estasiaren kasuan. Kalamuak du desberdintasunik txikiena.

Astebururo
edo ia
astebururo
kontsumitzea

Baldintza honetan arriskuaren pertzepzioa nabarmen handitzen da tabakoa, alkohola eta psikofarmakoen kasuan, kalamuaren kasuan era tasa txikiagoa da; legez kanpoko gainerako substantziek, oro har, arrisku-pertzepzioa txikiagoa dute kasu honetan.

Egunero edo
ia egunero
kontsumitzea

Kasu honetan legezko substantzietan arriskuen pertzepzioa asko handitzen da, batez ere tabakoaren, alkoholaren eta psikofarmakoen kasuan.

Eta generoa kontua hartzen bada?



Orokorrean ez dago alde handirik generoaren arabera.

Emakumeek arrisku-pertzepzio txikiagoa dute psikofarmakoekin, estasiarekin, haluzinogenoekin eta heroinarekin.

Bitarrak ez diren pertsonak gainontzekoek baino arrisku gutxiago ikusten diote tabakoari, alkoholari, kalamuari eta baita estasiari, kokainari eta arnasgarriei ere.

Orokorrean **gizonezkoak** dira arriskuen-pertzepzio altuena adierazi dutenak.

(Ikus 25. eranskina)




Teknologia digitalak, apustuak eta jokoa

Azken urtean egindako txat, sare sozial, bideo-joko, jokoa eta Interneten erabilerari buruz galdetzean, honako hauek izan dira lortutako emaitzak: Gazteen artean **gehien erabiltzen direna sare sozialak, txata eta Internet** (musika entzuteko eta pelikulak ikusteko) dira, kasu guztietan %90 baino gehiago dira erabiltzaile. **Bideo-jokoen** kasuan, erabiltzaile kopurua erdira jeisten da eta **apustuen** kasuan partaideen % 11 edo gutxiago dira erabiltzaile apustu motaren arabera.

ERABILERA OROKORRA ETA GENEROAREN ARABERA

(Ikus 26. eranskina)



(Ikus 27. eranskina)

JOKOA INTERNETEN ETA INTERNETETIK KANPO GENEROAREN ETA ADINAREN ARABERA



JOKOA INTERNETEN

Internetetik kanpo baino erabilera txikiagoa dago orokorrean. **Gizonezkoen tasak dira altuenak** adin-tarte guztietan, tasarik altuenak **15 eta 16 urte bitarteko** gazteetan agertzen dira. Pertsona ez bitarren datuak hutsak dira 17 urtekoetan izan ezik.



JOKOA INTERNETETIK KANPO

Erabilera tasak handituz doaz adinarekin batera. **Gizonezkoen tasa emakumezkoena baino altuagoa da adin tarte guztietan**, batez ere 15 urtetik aurrera, adin batzuetan gizonezkoek hirukoiztu egiten dituzte emakumezkoen tasak. Pertsona ez bitarren datuak baxuak edo hutsak dira.

Internetekiko mendekotasuna garatzeko arriskua

Teknologia digitalak ezinbesteko tresna bihurtu dira eguneroko bizitzan, batez ere gazteenentzat. Interneten eta teknologien erabilerarekin lotutako arazoak pertsonak konektatuta egoteko eguneroko ohiturak eta jarduerak alde batera uzten hasten direnean sortzen dira.

Drogei buruzko Plan Nazionalaren gomendioei jarraituz, **CIUS** (Erabilera Konpultsiboko Eskala; Meermerk, Van Den Eijnden, Verlost eta Garretse, 2009) eskalaren bitartez, erabilera desegoki edo arazotsu baten adierazleak antzeman ditzakegu inkestatutako pertsonetan.

CIUS INKESTA

Tresna psikometriko hau, 14 galderaz osatutako galdetegi laburra da. Otik 56rako puntuazioa atera daiteke, horrek adieraziko du pertsona bakoitzak duen portaeraren larritasun maila. **28 puntu edo gehiago lortuz gero, teknologi digitalak modu konpultsiboan erabiltzeko arriskua egongo litzateke.**

Ondorengoak dira jasotako erantzunen emaitzak: (Ikus 28. eranskina)

MENDEKOTASUNA	Inkestatutako pertsonen % 1,8k (15 pertsona) mendekotasun arazo larria erakusten du. Egoera honetan 8 emakume (% 2,0) eta 7 gizon (% 1,7) daude. Arrisku maila honetan ez dago bitarra ez den pertsonarik.
GEHIEGIZKO ERABILERA	% 5,7k (48 pertsona) gehiegizko erabilera egiten du, hau da, epe labur edo ertainean mendekotasuna izateko arriskua dute. Emakumeak gailentzen dira, hauetatik 30 (% 7,4) mendekotasuna garatzeko arriskuan egon daitezke erakusten duten portaera joerengatik. Gizonen kasuan , 18 (% 4,3) dira gehiegizko erabilera egiten dutenak eta pertsona ez bitarren artean ez dago pertsonarik arrisku maila honetan.
PORTAERA DESEGOKIAK	% 39,1ek (330 pertsona) portaera desagokiak erakusten dituzte noizean behin.
ARRISKU TXIKIA EDO EZA	% 53,43k (451) arrisku gutxi edo ez du inolako arriskurik erakusten.

CIUS: 28 PUNTU BAINO GEHIAGO ADIN ETA GENEROAREN ARABERA

Ikus 29. eranskina

- 1** Adin-tarte guztietan emakumezkoak gailentzen dira, 17 urtekoen artean izan ezik.
- 2** Emakumezkoen kasuan 15 eta 16 urte bitartekoek dituzte arrisku-tasa altuenak. 15 urterekin gizonezkoen tasa baino bost aldiz altuagoa da emakumezkoena.
- 3** Gizonezkoen kasuan 16 eta 17 urte bitartekoek dituzte ehunekorik altuena.
- 4** Pertsona ez bitarren kasuan ez dago pertsonarik 28 urte baino gehiagoko puntuaziorik daukana.



Alkoholari eta beste droga batzuei buruzko ezagutzak eta mitoak

Nerabe eta gazteek informazio objektiboa behar dute erabakiak era egoki baten hartu ahal izateko. Gizarteak ez dauka begirada berdina droga desberdinen inguruan eta bere substantzia deberdinen inguruan hedatzen den informazio ere ez da berdina.

Garrantzitsua da nerabeek drogen inguruan duten informazio ezagutzea, informazio horrek eragina izango baitu (beste faktore batzuekin batera) euren erabakietan.

Horretarako, inkestatuek esaldi deberdinei eman diete erantzuna egia edo gezurra den aipatuz edota ez dakitela erantzunez.

Jarraian daturik esanguratsuenak:

(Ikus 30. eranskina).

Garagardoa edo ardoa bakarrik edaten dutenak ezin dira alkoholiko izatera heldu



Gehiengo batek esaldi hau gezurra dela deritzo (% 56,6). % 32,5ek ez dakiela erantzun dute.

Alkohola droga bat da



Gehiengoak esaldi hau egia dela deritzo (% 78,1). % 6,0 gezurra dela erantzun dute.

Kannabisak ez du adikziorik sortzen



% 60,8k gezurra dela erantzun dute. % 31,3k ez dakite adikziorik sortzen duen edo ez.

Festa bat alkoholik gabe ez da dibertigarria



% 60k alkoholik gabe ondo pasa daitekeela deritzote. % 15,5ek alkohola beharrezkoa dela erantzun dute.

Kalamua naturala denez ez du kalterik egiten



% 53,1ek gezurra dela deritzote. % 15,5ek alkohola beharrezkoa dela erantzun dute.

Aurreko esaldietan ikertuen gehiengoak erantzun zuzena eman du, hurrengoko esaldi eta informazioen inguruan berriz, inkestatuen gehiengoak "ez dakit" erantzun du, baina bigarren ehuneko handieana erantzun zuzena emandu dutenena da.

Alkoholak sexualitatea hobetzen du



Inkestatuen erdiak ez dakite egia den edo ez. % 10,2k egia dela deritzote.

Kalamuak atentzio maila hobetzen du



Inkestatuen erdiak ez dakite egia den edo ez. % 36,6k gezurra dela deritzote.

Substantzia pizgarri batzuk mozkorraldia txikitzen dute



% 64k ez dakite erantzuten. % 27k gezurra dela erantzun dute.

Alkohola edaten denean jaten bada mozkorra txikiagoa da



% 45,6 ez dakite erantzuten baina % 42,3k egia dela erantzun dute.

Hurrengo esaldietan ere gehienek ez dakitela erantzun dute baina ehuneko handiago batek erantzun okerra eman du, hau da, orokorrean ezjakintasuna dago ideia hauen inguruan:

Emakumeek alkoholaren efektuak gehiago pairatzen dituzte



% 56,3k ez dakite egia edo gezurra den eta % 21,7k gezurra dela erantzun dute.

Kafe bat edanda edo dutxa hotza hartuta mozkorraldia txikitzen da



% 52,6k ez dakite egia edo gezurra den eta % 22,9k egia dela pentsatzen dute.

Alkohola animatzeko era egokia da




% 41,1ek ez dakite egia edo gezurra den eta % 30,1ek egia dela pentsatzen dute.

Generoaren arabera (ikus 31., 32. eta 33. eranskinak) emakumezkoak dira erantzun zuzen gehien eman dituztenak (% 53), gizonezkoen kasuan % 41etan eman dute erantzun zuzena, eta orokorrean bitarrak ez diren pertsonak ez dakitela erantzuteko joera gehiago izan dute (beraz % 12tan bakarrik eman dute erantzun zuzena).

LEHEN HEZKUNTZAKO DATUAK



Partaideen ezaugarriak



Aranzadi

98



Mariaren Lagundia

76



San Martin Agirre

100

Adinaren eta generoaren arabera horrela banatzen dira datuak:

ADINA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	GUZTIRA
10 URTE	37	51	-	88
11 URTE	80	65	1	146
12 URTE	17	22	-	39
13 URTE	-	1	-	1
GUZTIRA	134	139	1	274




Alkohola

Alkoholaren begirada

ALKOHOLA ERAKARGARRIA IRUDITZEN ZAIZU?

% 90,51ek ezezko erantzuna eman diote galdera honi. Tasa hau emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino altuagoa da (% 93,28 eta % 88,48). **% 5,11k** erakargarria ez dela baina **kontsumitu behar den zerbait** dela erantzun dute. (Ikus 34. eranskina).

Alkohola
kaltegarria
da?



Alkohola etorkizunean

% 40,88

Ez dakite edango duen edo ez.

% 36,86

Etorkizunean edango dutela diote.

% 22,26


Etorkizunean EZ dutela edango esan dute.

%40,29

Baietz erantzun duten emakumezkoak

%33,09

Baietz erantzun duten gizonezkoak



11 urtekoen 10 pertsonatik
4 etorkizunean edango
dutela diote

(Ikus 35. eta 36. eranskinak).


Alkohola probatzea

Alkohola probatu dutenak:

EMAKUMEAK



GIZONAK



Adinaren arabera 12 urtekoak dira alkohola gehien probatu dutenak (% 38,45), jarraian 10 urtekoak (% 23,86) eta 11 urtekoen (% 20,5).

(Ikus 37. eta 38. eranskinak).

Alkohola probatu dutenen artean % 84,3k ez dakite zergatik probatu duten, % 1,5 probatzeagatik egin dute eta % 1.1 familiako norbaitek probatzeko eman diolako edan du.




Tabakoaren eta baparreraren begirada


ERRETZEA ERAKARGARRIA IRUDITZEN ZAIZU?

% 98,91k ezezko erantzuna eman dio galdera honi. Gizonezko eta emakumezkoen tasak oso antzerakoak dira (% 99,3 eta % 98,6). (Ikus 39. eranskina).

Tabakoa kaltegarria da?



Baperra tabakoa bezain kaltegarria da?



Erretzea etorkizunean

% 75,0

Ezezko erantzuna eman dute.

% 22,3


Ez dakite erreko duten ala ez.

% 1,5

Baietz erantzun duten emakumezkoak.

% 2,2

Baietz erantzun duten gizonezkoak.



11 urtekoak dira bakarrik baiezko erantzuna eman dutenak (% 3,4)

(Ikus 40. eta 41. eranskinak).

Baperra probatzea

Baperra probatu dutenak:

EMAKUMEAK



% 0

GIZONAK



% 2,9

Adinaren arabera **10 urtekoak dira baiezko erantzuna eman dutenak (% 4,5)**

(Ikus 42. eta 43. eranskinak).

Tabakoa probatzea

Tabakoa probatu dutenak:

EMAKUMEAK



% 0

GIZONAK



% 2,9

10 urtekoen artean pertsona batek probatu du, 11 urtekoen artean bi pertsonak eta 13 urtekoen artean beste batek.

(Ikus 44. eta 45. eranskinak).



Teknologia digitalak

TEKNOLOGIA DIGITALEN ERABILERA

(Ikus 46., 47., 48. eta 49 eranskinak).



% 85,4

TXAT ERABILERA

% 38,3k asteen 4 alditan baino gehiagotan erabiltzen dute, % 18,2k 3 edo 4 aldiz asteen eta % 20,8 asteen behin edo birritan.



% 6,9

HELDUENTZAKO BAKARRIK DIREN ORRIALDEAK

Orrialde hauek gutxiengo batek erabiltzen dute. % 2,6k asteen behin edo birritan erabiltzen ditu. %1,8k asteen 3 edo 4 aldiz eta % 1,1ek asteen 4 alditan baino gehiago.



% 64,6

MOBILA

Erabilera antzeko da gizonezko eta emakumezkoen artean, horien % 60 inguruk erabiltzen du mobila ohiturak.



% 77,4

BIDEO-JOKOAK

Gehiengo batek (% 33.9) asteen behin edo birritan erabiltzen dituzte, % 17,2k asteen 3 edo 4 aldiz eta % 14,6k asteen 4 aldiz baino gehiago.



Substantziadun adikzioak

KONTSUMITZEN HASTEAK

Droga desberdinak kontsumitzen hasten diren gehienak **13 eta 16 urte bitartean** egiten dute. Alkohola da lehendabizi probatzen den droga, 14 urte eta 0 hilabeteko batz bestekoarekin, 7 hilabete geroago tabakoa eta 15 urterekin kalamua.

13-16



ALKOHOLA
14 URTE

TABAKOA
14 URTE 7
HILABETE

KALAMUA
15 URTE



PROBATU DUTENAK ETA KONTSUMITZAILEAK

Inkestaren artean alkohola da gehien probatu den droga ia tabakoa, baperra eta kalamua probatu dutenen bikoitza. Kontsumitzaileen artean ere antzerako datuak topatzen dira, tabakoa eta kalamuarekin konparatuz alkohol kontsumitzaile bikoitza dago.

PROBATU

Alkohola



% 53,8

Tabakoa



% 24

Baperra



% 29,7

Kalamua



% 23,5

AZKEN
HILEAN
KONTSUMITU

Alkohola



% 36,7

Tabakoa



% 15,5


Kalamua



% 15,5

Gainontzeko drogen kasuan ez dute % 7a gainditzen. Gehien probatutako substantzia psikofarmakoak dira eta ondoren kokaina, estasia, speed-a eta arnasgarriak, % 4,1 eta % 5,3 tarteko tasekin.

Gazteen artean etorkizuneko kontsumoaren inguruan galdetzerakoan tabako eta alkoholaren arteko desberdintasuna sumatzen da. Nahiz eta oraindik probatuta ez izan aukera handiagoak ikusten dituzte alkohola probatzeko, tabakoarekin konparatzen baldin bada.



ARRISKUEN PERTZEPZIOA

Drogak desberdinak probatzeko erabakia hartzeko orduan, substantziarekin lotzen diren arriskuek pisu handia izaten dute. Bergarako ikasleen kasuan **gehien kontsumitzen diren substantzietan topatzen arriskuen pertzepziorik txikiena**. Beraz garrantzitsua da ikasleek drogen inguruan duten informazioa objektiboa aberastea eta gizartean topatzen dituzten kontsumo ereduekin bat egitea.



Gazteenen artean droga legalen artean ere desberdintasunak egiten dituzte. Tabakoaren kasuan % 87k ikusten dute arriskutsu, alkoholaren kasuan berriz, % 68,6k dio arriskutsua dela eta bapeatzaileen kasuan % 38k bakarrik dio arriskutsua dela.



Bestalde droga desberdinen inguruan duten informazioa aztertzerakoan **alkoholaren efektuen inguruko mitoak dira hedatuenak** eta horrek kontsumoetan eragiten du, beraz, bereziki garrantzitsua da alkohoplaren inguruko informazio objektiboa eskaintzea.

ERABILERA

Ikertuen artean gehien erabiltzen diren teknologia digitalak **sare sozialak eta txat**-a dira. **12 urtetik gorako**en artean **% 90ek** erabiltzen dituzte eta **Lehen Hezkuntzako ikasleen 10 eta 12 urteko bitarteko**en artean **% 85** ek. Datuak generoaren arabera berdintsu banatzen dira nahiz eta emakumezkoen tasak izan altuenak.



Bideojokoek ere erabilera hedatua dute, kasu honetan, gazteen artean ehunekoak handiagoak dira, **Lehen Hezkuntzako** ikasleen artean **% 77,4** aipatu dute bideojokoek erabiltzaile direla, **nagusiagoen artean** berriz **% 50,8k**. Gizonezkoen tasak dira gailentzen direnak.



Apustuen kasuan erabilera hedatuena gizonezko nagusien artean ematen da, generoaren arabera desberdintasun handiak topatuz. Inkestaren artean **% 11 baino gutxiago** dira erabiltzaile eta internetetik kanpoko apustuen tasek interneten egiten diren apustuen tasak gailentzen dituzte.




ARRISKU PORTAERAK ETA MENDEKOTASUNA

Ikertatuen gehiengo batek teknologia digitalen bat erabiltzen badu ere ikertuen **erdiak ez du arriskuzko portaerarik erakusten**, hau da, gailuen erabilera ludikoa egiten dute eta horien ondorioz arriskurik izateko aukera txikiak dituzte.

Bestalde **% 39, 1ek**, erabiltzen duten denboragatik, erabiltzeko duten beharragatik, erabilerarekin sortzen dituzten emozioengatik edota euren bizitzan erabilerak duen eraginagatik, **arrisku portaeren seinaleak dituzte** gailu hauek erabiltzerakoan.

Mendekotasuna edo garatzeko arrisku handia
% 7.5

Arrisku portaerak
% 39.1



Arrisku eza
% 53.43

E.A.Eko DATUEN KONPARAKETA

Tokiko Planean egindako ikerketako datuak Euskal Autonomia Erkidego mailan egindako ikerketekin alderatu daitezke lortutako datuak kontextuan kokatzeko.

Kokatuko den lehendabiziko datua droga desberdinak **kontsumitzen hasteko adina** izago da. Kasu honetan **Espainiako Gobernuak 2021ean egindako ESTUDES** (Encuesta sobre Uso de Drogas en Enseñanzas Secundarias) ikerketarekin konparatuko dira, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako datuekin. Inkesta honek 14 eta 18 urte bitarteko 78.859 ikasleren datuak biltzen ditu.




Alkohola kontsumitzen hasteko adina berbera da eta tabakoa eta kalamua kontsumitzen hasteko adinak hilabete batzuk atzeratzen dira Bergarako gazteen kasuan ESTUDES-eko datuekin konparatuz.

Bestalde, **azken hilean egindako kontsumoen konparaketa** egingo da. Alde batetik ESTUDES-eko datuekin alderatuko dira, kasu honetan garrantzitsua da ikerketa horretan erabilitako laginaren adinak kontuan izatea. Izan ere, ESTUDES-eko laginak 14 urtetik gorako pertsonak hartzen ditu bere baitan eta Bergaran egindako ikerketak 12 urtetik gorakoak; kontsumitzen hasteko adina 14 urtetik gorakoa dela kontuan izanik laginaren osotasunaren datuak konparatzeak informazio okerra eskaini dezake. Beraz, konparaketa lagin osoarekin eta baita Bergarako gazteen 14 urtetik gorakoekin egingo da.


Droga eta Eskola ikerketak lagin antzeragokoa dauka adin aldetik, beraz azken hileko kontsumoa ikerketa honetako datuekin ere konparatuko dira. Ikerketa hau **Eusko Jaurlaritzak eraman zuen aurrera 2017**. Kasu honetan, datuak konparatzerakoan kontuan izan bejarko da ikeketa egin zenetik pasa den denbora. Zentzu honetan bereziki garrantzitsua izango da osasun larrialdiak gazteen kontsumoetan izan ahal duen eragina kontuan izatea.

Alkohola azkenengo hilean kontsumitzea




Azkenengo hilean alkohola kontsumitu dutenen kopurua konparatzerakoan ikus daiteke, laginaren osotasuna aztertzerakoan 2022 ko Bergarako datuak Drogak eta Eskolak 2017ko datuak baino baxuagoak direla. 14 urte baino gehiagoko lagina konparatzean berriz Bergarako datuak Estudes-ek 2021ean aurkeztutakoak baino altuagoak dira.

Tabakoa azkenengo hilean kontsumitzea



Azkenengo hileako tabako kontsumoaren kasuan bai lagin osoko tasa zein 14 urtetik gorakoen tasa Drogak eta Eskola eta Estudes-eko datuak baino zerbait baxuagoak dira.

Kalamua azkenengo hilean kontsumitzea



Azkenengo hileako kalamu kontsumoaren kasuan ere tasak EAE-ko inkestetako datuak baino baxuagoak dira Bergarako laginean lortutakoak.

KOMUNITATEAK MENDEKOTASUNEKIKO DUEN PERTZEPZIOA



Bergarako errealitatearen egungo diagnosi eta beharrak zehaztu ahal izateko, funtsezkoa da herriko eragile esanguratsu eta desberdinek substantzien kontsumo eta jokabide arazotsuen inguruan duten ikuspuntua ezagutzea.

Horretarako, parte-hartze ereduan oinarritzen den metodologia jarraitzea erabaki da; izan ere lan-metodo honek, gizartearen arlo eta sektore guztietako herritarren iritzia biltzea ahalbidetzen du, hasiera batetik pertsonak planaren eratze prozesuan inplikatur eta aurrerago egingo diren diagnosi, plangintza eta ebaluaketa ekintzetan beraien jarraipen aktiboa sustatuz.

Tokiko planean komunitatearen parte-hartzea bermatzeko eta ahalik eta informazio gehien eskuratzeko helburuarekin, **bi estrategia garatu ziren**:

1. Udalaren **web orrian**, era anonimoan erantzun daitekeen galdetegi labur bat eskegi zen, gaiarekiko interesa duen edozein herritarrei zuzendua.
2. Herriko arlo eta sektore desberdinetako eragile esanguratsuekin osatutako **eztabaida-taldeak** sortu ziren.



HERRITARREN PARTAIDETZA: ONLINE INKESTA

140



% 77,14

Emakumeak


% 22,14

Gizonezkoak

% 0,7

Ez bitarra

36-60 urte
(% 77,86)



% 17,4 18-35 urte, % 5
60 urte edo gehiago.



% 67,14 **guraso**
bezala erantzun
du

% 19,28 **herritar**
bezala erantzun
du



% 7,14
hezkuntza
langile bezala
erantzun du


1. Bergaran dauden mendekotasun arazo nagusien inguruko galderak.
2. Arazo hauek prebenitzeko edo aurre egiteko ekintza eta estrategien inguruko galderak.
3. Udalak mendekotasunen prebentzioan egiten duen lanaren ezagutzaren inguruko galderak.
4. Mendekotasunen Prebentziorako Tokiko Plan berrian indartu eta bultzatu beharko liratekeen ekintza, jarduera eta ekimen desberdinen inguruko galderak.

MEDEKOTASUN ARAZO NAGUSIAK



Inkestatuen % 77k **intzidentzia handia** antzeman dute azken urteotan.

SUBSTANTZIARIK GABEKOAK



% 85ek **sare sozialen** erabileraren handitzea sumatu du.

Bideo-jokoen kasuan % 68,57k eta **online jolasetan** % 78,57k erabileran goranzko joera dagoela aitortu du.



% 64,28k **online apustuak** gero eta ohikoagoak direla esan dute. Aurrez aurreko apustuetan ordea, iritzia ez dago hain zehaztuta.

Igoera hau **apustu-etxe eta kasinoen kopuru igoerara** (% 57,14), **publizitatearen aregotzeari** (% 65) eta **kontrol ezari** % 65,71 eragozten diote.

SUBSTANTZIADUNAK



Parte hartzaileen % 50,71ek azken urteotan **alkohol** gehiago edaten dela uste du, batez ere gazteen artean (% 60).

% 42,86k **kalamuaren** kontsumoa mantendu egin dela uste du, beste % 40k ordea kontsumoa areagotu dela.



Zigarro elektroniko eta tabako kontsumoaren inguruan herritarren gehiengoak ez dauka oso argi kontsumoa igo edo jaitsi egin den.

Beste droga sintetiko batzuen kontsumoan arreta jarritz, pertsonen % 54,28k igo egin dela baieztatzen du.



Psikofarmakoen kasuan % 55ek kontsumoa igo dela antzematen dute.





ALDAGAI GARRANTZITSUAK



% 78,57k legez edo legez-kanpoko substantziak **erraz eskuratzen** direla uste du.

Alkohol, tabako eta kalamuaren kasuan bereziki, **kontsumoa nahiko onartuta** dagoela baieztatu dute % 83k.



Adikzioen gaiarekiko gizarteak duen **ezagutza mailaren** inguruan erantzunak nahiko desberdinak dira. % 42,14k herritarren ezagutza maila baxua dela uste du, % 35ek ordea kontrakoa deritzo.

Gehiengoak (% 68) bat datoz onartzean **gizarteak orokorrean gutxi parte hartzen duela prebentzio lanean**.



INGURUAREKIN KONPARATUTA

Substantziarik gabeko adikzioen kasuan, hurbileko beste udalerri batzuekin alderatzean, herritar gehienek, % 95ek, hauen erabilera **antzekoa** dela esaten du. **Drogomendekotasunei** dagokienez, % 88,57k, **ondoko herrien antzeko kontsumoak** daudela uste du.



PERTSONA TALDE ZAURGARRIENAK

Gazteak (18-35 urte): % 82,86

Adin txikikoak: % 37,86

Biztanleria oro har: % 35,71

Gizonak: % 27,85

Familia zailtasun bereziak dituzten pertsonak: % 27,14

Zailtasun sozioemozional bereziak dituzten pertsonak: % 25,71



MENDEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO BEHARREZKO EKINTZAK



EKINTZA KOMUNITARIOAK

Herritarren % 82,86k komunitatean adikzioen prebentziora bideratutako **ekintza gehiago** antolatu beharko lirakeela uste du eta % 76,43k herritarren artean kontzientzia sustatzeko **kanpaina gehiago** behar direla.





IKASTETXEETARAKO PREBENTZIOA



% 82,14k ikastetxeetan **prebentzio lana lehenago hasi** beharko litzatekeela uste du, bai drogomendekotasunen zein teknologia digitalen erabilera egokien inguruan. 2 pertsonak azpimarratu nahi izan dute, **udalerriko errealitatera egokitutako formakuntza** saioak antolatu eta adikzioen arazoa hurbiletik bizi duten edo bizi izan dituzten pertsonen **testigantzak barne hartzea**.



FAMILIENTZAKO FORMAKUNTZA

% 81,42k **familiei zuzendutako aholkularitza eta orientazio gune** bat egon beharko litzatekeela aipatu du eta % 80,71k **familientzako formakuntza eta informazio hitzaldi gehiago** antolatu beharko litzatekeela, seme-alabekin adikzioen gaia ahalik eta hoberen bideratzeko estrategia praktikoak emanez.



AISIALDI ETA DENBORA LIBREA



% 80,71k, **aisialdirako eskaintza zabalagoa** egon beharko litzatekeela dio, baita gaueko aisialdirako alternatibak. Beharrezkoa da lehenik eta behin herritarren interes eta motibazioak ezagutzea. Bestalde, hiru pertsonak kirol-instalazio publiko eta estaliak egotea aldarrikatzen dute, ordutegi zabalagoarekin.

Partaide gehienak bat datoz ekintza hauek aurrera eraman ahal izateko **gizartearen parte diren eragile desberdinen elkar-lana ezinbestekoa den ideiarekin**.

PREBENTZIO BALIABIDEEN BALORAZIO ETA EZAGUTZA

NORA JOKO ZENUKE?



10 pertsonatik 5ek mendekotasun arazoren bat izanez gero **nora jo ez dakitela** erantzun dute.



% 85
ZERBITZU ESPEZIALITATURA
Konfidentziasunagatik eta laguntza ematen dutela entzun dute.

% 80
MEDIKUARENERA
Konfidentziasunagatik, gertutasunagatik edota ezagutzen duten bakarra izateagatik.

% 57
OSASUN MENTALERA

% 50
UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK EGITEN DUEN PREBENTZIO LANA EZAGUTZEN DUZU?



10 pertsonatik 8k ez dute egindako lana ezagutzen.



EZAGUTZEN DUTENEN BATAZ BESTEKO BALORAZIOA



Hezkuntza: Ikasleentzako tailerrak	★★★★★★★★★★
Familientzako prebentzio hitzaldiak	★★★★★★★★★★
Adikzioen prebentziorako udal zerbitzua: Informazio, orientazio eta aholkularitza	★★★★★★★★★★
Aisia eta denbora librea: Lonjalaket	★★★☆☆☆☆☆☆
Aisia eta denbora librea: Botiltzarra	★★★☆☆☆☆☆☆
Aisia eta denbora librea: Testing-a	★★★☆☆☆☆☆☆
Aisia eta denbora librea: Tabakorik gabeko munduko egunaren kanpaina	★★★☆☆☆☆☆☆
Aisialdi osasungarrirako jarduerak (gaztetxoko, kirol-kultura ekintzak, e.a.)	★★★★★★★★★★

TOKIKO PLANAK INDARTU BEHARREKO EKINTZAK



AISIALDI OSASUNGARRIA




Jarduera eta ekintzen eskaintza zabalduz, **naturari, zineari, musikari, kirolari protagonismoa** emanaz. Gainera droga kontsumoetatik aldentzen den beste **jai-eredu alternatiboak** sustatu nahi dira gazteen artean. Parte hartzaile batek, DBH eta Batxilergoko ikasleei bideratutako **udalekuak** antolatzea ere proposatu du.

HAUR ETA GAZTEEN PREBENTZIOA

Ikastetxeetan hitzaldiak jasotzen **lehenago** hasi beharko litzateke, bereziki **teknologi digitalen** (mugikorra, bideojokoak, sare-sozialak, e.a.) erabilera arduratsuaren gaia lantzeko. Horretaz gain, **adikzio bakoitzaren inguruan tailer zehatzak** antolatzea beharrezko ikusten da eta baita, gazteei zuzendutako **kontzientziazio kanpaina** gehiago egitea. 5 pertsonaren ustetan, interesgarria izango litzateke **mendekotasun bizipen errealak** ikasleen hitzaldietan txertatzea.

SARE LANA



Adikzioen prebentziorako **beharrezko informazioa jaso** beharko luke biztanleriak (adikzioen ondorioak, arrisku eta babes faktoreak, e.a.), **komunitatea kontzientziazteko** eta aldaketarako hausnarketa bultzatuz.

NEURRI ZIGORTZAILEAK

Poliziak droga kontsumo eta trafikoa kontrolpean mantentzeko **neurri zorrotzagoak** hartu beharko lituzke.

FAMILIENTZAKO HITZALDIAK

Familiei zuzendutako **informazio eta formakuntzak indartu** behar dira, hauen kalitatea bermatuz.

IKUSGARRITASUNA

Laguntza eta aholkua ematen duten **baliabideak ikusgarri egin** eta eskuragarri jarri. Beste edozein zerbitzuren moduan herritarrak **normalizatu** dezaten eta adikzio arazoek duten **estigma sozialarekin pixkanaka apurtuz**.



UDALERRIKO ERAGILE DESBERDINEN EZTABAIDA TALDEAK

Plan honen eraketa prozesua metodologia parte-hartzailean oinarritzen denez, ezinbesteko bilakatzen da Bergarako eragile desberdinen parte hartzea sustatuko duten eztabaida taldeak egitea. Honek udalerriko errealitatea perspektiba desberdinetatik aztertzea ahalbideratzen du, adikzioen inguruko ikuspuntu orokor eta aberasgarria lortuz.

Lau eztabaida talde antolatu ziren, eta horietako bakoitzera arlo desberdinetan adituak eta esanguratsuak diren udalerriko pertsonak bertaratu ziren.

43



UDAL LANGILE ETA POLITIKARIAK (T1)

Sail desberdinetako zinegotziak, udal teknikari eta administrariak, udaltzaingoak eta alkatea egon dira. Guztira **14 pertsonak** parte hartu dute, 9 emakumek eta 5 gizonek.



HEZKUNTZA ARLOKO LANGILE ETA ORDEZKARIAK (T2)

Ipintza BHI, Aranzadi ikastola, Mariaren Lagundia, San Martin eta Miguel Altuna ikastetxeak ikasle, irakasle eta gurasoak bertaratu ziren. Guztira **16 pertsonak** parte hartu dute, 12 emakumek eta 4 gizonek.



OSASUN ETA GIZARTE ONGIZATE ARLOKO LANGILE ETA ORDEZKARIAK (T3)

Osasun zentroko pediatria, mediku, erizain eta koordinatzailea, Caritas-eko bolondresak, zerbitzu psikosozialeko hezitzaileak eta alkoholiko anonimoak elkarteko kide bat betaratu ziren. Guztira **12 pertsonak** parte hartu dute, 8 emakumek eta 4 gizonek.



OSTALARI, DENDARI, AISIALDI, KULTUR, KIROL, E.A. ELKARTEAK ETA HERRITARRAK (T4)

Gazte Koordinadora Sozialista (GKS) taldeko **kide bakarra** bertaratu zen antolatutako forora.

Foro edo eztabaida talde bakoitzak, **ordu eta erdi eta bi ordu inguruko iraupena izan zuen**. Bertan, adikzioen prebentzioarekin erlazionatutako zenbait galdera planteatu zitzaizkien eztabaida eta iritzi desberdinen hartu-emanak sustatzeko.

1. Kontsumo eta jokabide adiktiboei dagokienez, zeintzuk dira Bergaran mendekotasun arazo nagusiak?
2. Zerk areagotu dezake mendekotasun bat garatzeko probabilitatea? Arrisku faktoreak.
4. Zeintzuk dira zuen ustez lehentasunez landu behar diren alderdiak prebentzio esku-hartzeetatik?
5. Udalak mendekotasunei aurre egiteko dituen baliabideetatik, zein indartuko zenukete?

MENDEKOTASUN ARAZO NAGUSIAK

SUBSTANTZIADUNAK



Alkohola da dudarik gabe, talde guztien iritzitan, populazio orokorrean gehien kontsumitzen den substantzia. **Kalamu** eta **tabako** kontsumoa ere nahiko onartua dagoela aipatu dute.

Kokaina, speed eta beste substantzia estimulatzaileen kontsumoa ere ohikoa dela azpimarratu dute. T1 eta T2n, **psikofarmakoen** kontsumoak gorakada nabarmena izan duela esan dute, bai gazte zein helduetan.




SUBSTANTZIARIK GABEKOAK

Sare sozialak eta **Internet** orokorrean adin tarte guztietan erabiltzen dira egunerokotasunean mugikorraren bitartez, baina bereziki nerabeen artean ondorio larriak eragiten ari da (lo gutxiago, arreta zailtasunak, ezegonkortasun emozionala, e.a.). **Bideo-jokoak, zorizko joko eta kirol apustuak** ere arazo bilakatzen ari dira herritar askorentzat. Lehenengoak batez ere LH eta DBH-ko ikasleetan du eragin eta joko/apustuak, DBH 4. mailako edo/eta Batxilergo edo/eta Lanbide Heziketan dauden ikasleek erabiltzen dituzten gehien online.



ADINAREN ARABERA



Nerabe eta gazteek astean zehar, edari energetikoak, tabakoa eta kalamua, eta asteburuetan substantzia bi horietaz gain alkohola ("botelloietan") eta 16 urtetik gora beste droga sintetiko batzuk.

Helduen kasuan, alkohola gehien kontsumitzen den substantzia, funtzio sozializatzailearekin; tabako eta kalamu kontsumoa ere egunero ematen da. Asteburuetan edo pintxopote egunetik aurrera, kokaina edo beste droga sintetiko batzuk gehitzen zaizkio.



4

GENEROAREN ARABERA

	Substantzia kontsumoa	Jokabide adiktiboak
GIZONAK	Ez da substantzien kontsumoan desberdintasunik nabari, baina bai kontsumoak eragindako jarreretan (gizonezkoak indarkeria handiagoa erakusten dute drogen efektupean eta emakumeek jarrera horiek pairatzen dituzte) (T4).	Bideo-joko, kasino-joko, kirol-apustuak eta "kripto-txanpon" negozioak.
EMAKUMEAK	Psikofarmakoen kontsumoa emakumezkoetan handiagoa dela uste da (T1).	Sare-sozialak: erantzuna ematen baitute emakumeen edertasun kanonak betetzeko premia sozialari. Erosketa konpulsiboak (T1).
EZ BITARRAK	-	-

BESTE ALDAGAI GARRANTZITSUAK



Alkohol, edari energetiko, tabako eta kalamuaren **kontsumoa oso normalizatuta dago** udalerrian, bai gazte zein helduen artean, horren ondorioz substantzia hauen kontsumoak izan ditzakeen arriskuen **kontzientzia falta** dago eta horien kontsumo arazotsuak antzematea zailagoa da.



Legezko, zein legez-kanpoko substantziak **eskuratzea Bergaran oso erraza** dela diote, trafiko sare antolatu bat garatu dute herrian adikzioetatik etekina ateratzeko. T2n, zenbait **ikastetxetan substantzia batzuk saltzen dituzten susmoa** daukate, batez ere lanbide heziketa zentroetan.
Pornografia web-orriak, kasino joko eta apustuak ere nahiko eskuragarri daude gaur egungo nerabeentzat.



Pandemiaren eraginez, **teknologia digitalen erabilera nabarmen igo da** eta adin goiztiarragoetan hasten dira.
Droga kontsumoan, **helduen kasuan alkohol eta psikofarmako gehiago** kontsumitzen direnaren sentsazioa daukate eta **nerabe/gazteek alkohola kontsumitzeko modua aldatu dute**, edari destilatu gehiago eta maiztasun handiagoarekin (astebururo).

5

ARRISKU FAKTORE NAGUSIAK



GIZARTE ETA UDALERRIA



Langabezia, ezegonkortasun ekonomikoak, lan baldintza txarrak izateak antsietate handia, frustrazioa edo beste emozio desatseginak sor ditzake. Ondorioz, **emozio hori itzaltzeko** estrategiaren bat (substantzien kontsumoa, jokia, kirol apustuak, sare sozialak, etab.) bilatzen da. Parte-hartzaile batzuen ustez, **maila ekonomiko altua duten pertsonak, drogak lortzeko erraztasun** handiagoa daukate, batez ere gazteen artean.



Alkohol, kalamu eta psikofarmakoen kontsumoaren **gehiegizko onarpena** eta normalizazioa. Gazteek jasotzen dituzten **mezuak kontraesankorrak** dira, eredu diren pertsona helduak alkohol kontsumitzaileak baitira eta substantzia honen efektuak gutxietsi egiten dituzte beste substantzia batzuekin alderatuz. **Psikofarmakoetan, medikamentuak** direnez ez dira arriskuak hautematen.



Droga kontsumo eta teknologi digitalen erabileran desinformazioa: Herritarrek orokorrean adikzioekiko ikuspegi nahiko distortsionatua daukate, mito eta sinesmen faltsuetan oinarritutakoak.



Eskuragarritasuna eta kontrol falta: bideo-joko, sare sozial, zorizko joko, kirol apustu, zein edozein droga lortzea nahiko erraza da. Askotan taberne ez dute indarrean dagoen arautegia betetzen eta adingabeei saltzen diete alkohola. Beste drogei dagokienez, gazteen artean **droga-trafiko sare antolatu eta zabaldua dago Bergaran.**



Adikzio arazoak esku-hartzeko baliabideen eskasia eta ikusgarritasun falta: Jendeak ez du naturaltasunez mendekotasunen inguruan hitz egiten. Besteek izan ditzaketen aurreiritziek kezkatzen diete eta arazoa ezkutatzearen joerak dirau. Honek laguntza eskatzea zailtzen du.



Komunitate identitatearen galera: **Indibidualismoa** da nagusi gure gizartean, eta honek mugimendu edo ekintza komunitarioak antolatzerako orduan, elkarlana oztopatzen du. Herritarren artean **pasibotasuna eta inplikazio falta** nabari da, zaila da jendea bizi ez duen egoera baten inguruan sentsibilizatzea eta konprometitzea.



AIUALDIAREN KUUEAKETA

Aisialdi eta denbora librerako **eskaintza desagokia edo txikia** izatea: Adingabe eta gazteen kasuan, aisialdirako aukerarik ez izateak, **lokaletan denbora gehiago igarotzea** suposatzen du; askorentzat lagunen elkargune bakarra bilakatzen da lokala.



Jai giroan **ondo pasatzeko alternatiba bakarra izatea**: Gizartean oso barneratuta dago jai giroa alkohol edo beste substantzien kontsumoarekin, baina beharrezkoa da txikitatik beste jai eredu osasungarriagoak erakustea.



FAMILIA ETA HEZKUNTZA EREDUAK

Familia eta nerabearen arteko **komunikazio eta atxikimendu falta**.

Seme-alabekin **kalitatezko denbora ez igarotzea**.

Familia **hezkuntza eredu desagokiak**.

Heziketa emozionalerako baliabide falta: desinformazio eta heziketa emozionalak duen garrantziaren kontzientzia eza familia eta hezkuntza arloan.

Etxean **teknologia digitalen gehiegizko erabilera**.

Irakasleen ezagutza/formakuntza gabezia: Urrakortasun egoeran dauden ikasleak antzemateko, laguntzeko eta bideratzeko jakintza eza.



NORBANAKOAREN EZAUGARRIAK

Kudeaketa emozionalerako zailtasunak: arazo edo egoera desatseginen aurrean baliabide/konpetentzia sozioemozionalen gabezia edo auto-kontrol zailtasunak izatea.

Gaixotasun mentalak.

Nerabezaroaren ezaugarriak: ezegonkortasun emozionala familiatik aldentzeko beharra, beste talde baten parte izateko. Autoestimu baxua, gizarte trebetasun eskasak, kritikotasun falta, hedonismoak edo frustrazioaren kudeaketa desagokiak jokabide arriskutsuagoak izatera bultzatzen die.



LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO PROPOSAMENAK



HEZKUNTZA EREMUKO LEHENTASUNEZKO PROPOSAMENAK



HERRIKO ERAGILE DESBERDINEI ZUZENDUTA (HEZKUNTZA, FAMILIA, KULTUR, OSASUN, OSTALARITZA, ETAB.)

- Adikzioen prebentzioarekin lotutako informazio eta formakuntza saioak antolatzea.



LEHEN HEZKUNTZAN: Adikzioen prebentzioa adin goiztiaragoetan hasi (LH 5. mailan).

- Teknologia digitalen erabilera arduratsua lantzen hasi eta zeharka hezkuntza emozionalaren bitartez babes faktoreak indartu.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAN ETA BATXILERGOAN:

- Adikzioen prebentziorako hitzaldietan, **adikzio arazoak izan dituzten pertsonen testigantzak txertatu.**
- **Konpetentzia sozioemozionalak landu:** Aurre-nerabe eta nerabeek beraien kabuz pentsatzen eta erabakiak hartzen ikasi behar dute. Horretarako, norberaren ezagutza, emozioen kudeaketa osasuntsua eta begirada kritikoa garatzea ezinbesteko izango da.
- **Substantzien kontsumoak eta gehiegizko erabilerak sor ditzakeen ondorioei buruzko informazio objektiboa eskaini,** bai ikastetxe, zein osasun zentro, zerbitzu psikosozial edo elkarte desberdinen bidez.

*Esku-hartze guztiek genero ikuspegia aintzat hartu behar dute.



FAMILIAK SEME-ALABEN HEZIKETAN AHALDUNDU:

- **Guraso/familia lan-taldeak sortu herri mailan** elkarri laguntzeko eta ekintza desberdinen antolaketan konpromisoa eta inplikazioa sustatzeko.
- **Familiei zuzendutako formakuntza eskaintza sendotu eta kalitatea bermatu:** Batetik, eredu diren heinean, adikzioen inguruan informazio objektiboa jaso behardute, beraien diskurtso eta ekintzen artean koherentzia bat izan dezaten. Bestetik, hezkuntza emozionalean oinarrituz, seme-alaben heziketan lagungarri izan daitezkeen baliabide eta jarraibideak eskaini, hala nola, mugak nola ezarri, komunikazio estrategia eraginkorrak eman, e.a.
- Familien parte-hartzea bultzatzeko estrategiak garatu.



ARLO KOMUNITARIOKO LEHENTASUNEZKO PROPOSAMENAK



HERRITARREN PARTE HARTZE AKTIBOA BULTZATU, SARE LANA SUSTATU AHAL IZATEKO:

- **Gizarte eragile desberdinen artean** elkarlana eta parte-hartzea beharrezkoa da.
- Udalerriko **mendekotasun diagnostikoaren datuak herritar guztiek eskuragarri izatea.** Norberaren pertzepzioa kontrastatzeko baliagarria litzateke eta herriko errealitatea ezagutzeko beharrezko.
- **Adikzioen prebentzio zerbitzua ikusgarri egin.** Webgunean informazioa jartzeaz gain, herritarrengana heltzeko modu berriak sortu (sare-sozialak, e.a.).



HERRIKO AISIALDI ESKAINTZA ZABALDU:

- **Herritarrei komunitatearen parte sentiarazteko, galdetu zer kirol, aisialdi eta kultura eskaintza mota izatea gustatuko litzaiekeen udalerrian, haien beharrak antzemateko eta alternatiba berriak garatu ahal izateko.**
- **Aisialdiaren kudeaketa osasuntsua sustatzea, jai giro eta droga kontsumoen binomioarekin apurtzeko.**
- **Arrisku murrizketara bideratutako programa zehatzak garatu.**
- Familia guztientzako **eskuragarriak diren ekintzak** antolatu, hau da, egoera ekonomikoa oztopo izan ez dadila.
- **Aisialdian erreferente diren helduak prebentzioaren gaian hezi.**
- **Kale hezitzailearen presentzia indartu nerabe eta gazteen aisi-guneetan.**



ESKARI ETA ESKAINTZAREN KONTROLA:

- **Ikastetxeetan egiten den drogen salerosketa mugatzeko eta ekidin ahal izateko baliabideak indartu.**
- **Gazte lokaletan legediaren informazio eta arrisku murrizketa neurriak landu.**
- **Ostalari eta merkatariei ordenantzak betearaztea, adin txikikoei alkohol edo tabako salmenta debekatuz.**

OSASUN ARLOKO LEHENTASUNEZKO PROPOSAMENAK

- **Osakidetzan haur eta nerabeen arreta psikologiko/psikiatrikoa indartu behar da.**
- **Osasun eta zerbitzu psikosozialen arteko koordinazioa sendotu, familia eta norbanakoen informazio gehiago edukitzeko.**



INDARTU BEHARREKO PREBENTZIO LANA



	GUZTIZ DESADOS	GUZTIZ ADOS
Ikasleekin prebentzio lana arinago hastea		✓
Prebentzio kanpaina gehiago		✓
Familientzako prebentzio saio gehiago		✓
Aisia eta denbora libreko eskaintza gehiago	✓	

LEHENTASUNEZKO ILDO, HELBURU ETA EKINTZAK



Bergarako Adikzioen Tokiko Plana ardazten duten oinarriak finkatu ahal izateko, aintzat hartu dira:



**Euskadiko
Adikzioen
VII. Plana**



Bergarako
Udala

**Bergarako
IV.
Planaren
ebaluazioa**



**Adikzioen
arloan
eskura
dagoen
ebidentzia
zientifikoa**



**Biztanleria
helduaren
pertzepzioa**



**Udalerriko
ikasleek
